# OTSAILA FEBRERO

2014



Alhóndiga Bilbao

**Kultura Bizi Den Tokia**

Donde Vive la Cultura

www.alhondigabilbao.com

# AURKIBIDEA
ÍNDICE

**HILEKO LANKIDETZA /** LA COLABORACIÓN DEL MES **ANDY DAVIES**
**'LLORA CUANDO TE PASE. LAIDA LERTXUNDI' ERAKUSKETAREN KOMISARIOA** 5
COMISARIO DE LA EXPOSICIÓN 'LLORA CUANDO TE PASE. LAIDA LERTXUNDI'

## KULTUR PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN CULTURAL

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIONES
**'LLORA CUANDO TE PASE. LAIDA LERTXUNDI'** 7
**'BADU BADA. EUSKERA MUNDU ELEANITZEAN'** 12
'BADU BADA. EL EUSKERA EN UN MUNDO MULTILINGÜE'

**ZINEA** CINE
**ARGENTINATIK DATORREN ZINEKO EZOHIKO ISTORIOAK**
HISTORIAS EXTRAORDINARIAS DEL PRÓXIMO CINE ARGENTINO 16

**ARTE ETA EZAGUTZA** ARTE Y CONOCIMIENTO
**BULEGOA Z/B** 22

**ARTE BIZIAK** ARTES EN VIVO
**KONTZERTUAK** / CONCIERTOS
**TAKASHI KAKO QUARTET EUROPEAN TOUR 2014** 24
**DANTZAZ KONPAINIA** 25
**MARTIRIO Y RAÚL RODRÍGUEZ** 26

**FORUM D' AVIGNON BILBAO**
**RAW (RESEARCH ACTION WORKSHOPS)** 28

## MEDIATEKA BBK

**IlustART** 33
**ZIENTZIATEKA / AURREZ AURRE** 34
**PROGRAMAZIO EGONKORRA** PROGRAMACIÓN ESTABLE 35
**ASTEBURUAK MEDIATEKA BBKn** LOS FINES DE SEMANA EN MEDIATEKA BBK

## LURREKO ETA URETAKO JARDUERAK ACTIVIDADES EN TIERRA Y AGUA

**UMEENTZAKO URPEKARITZA BATAIOA IGERILEKUAN** 37
BAUTISMO INFANTIL DE BUCEO
**TARIFAK 2014** 38
TARIFAS 2014
**POOLBIKE MARATOIA /** MARATÓN DE POOLBIKE 39
**LASTER /** PRÓXIMAMENTE 40

## KANPOKO PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN EXTERNA 43

## MERKATARITZA GUNEA ESPACIO COMERCIAL 45

## INFORMAZIO OROKORRA INFORMACIÓN GENERAL 47

**OTSAILEKO JARDUEREN EGUTEGIA /** CALENDARIO DE ACTIVIDADES DE FEBRERO 48
**PLANOA /** PLANO 50



# ANDY DAVIES

**'Llora cuando te pase. Laida Lertxundi' erakusketaren komisarioa**

Comisario de la exposición 'Llora cuando te pase. Laida Lertxundi'

## Laida Lertxundi, eskuz egindako zinea

Laida Lertxundiren zinea artista-zinea da: enkoadraketaren eta begirada adiaren zinea. Barrutik kanpora egindako begirada, orain dela hamar urtetik bizileku duen Los Angelesko hotel eta apartamentuetatik Kaliforniako hegoaldeko basamortu eta mendizerretarantz doan begirada, alegia.

Hona hemen bere lanabesak eta lankideak: 16 mm-ko kamerak, ia-ia zaharkituta dagoen mekanika, eta profesionalak ez diren adiskide eta laguntzaileen taldea. Hainbat hilabetez filmatzen du, eta, epealdi horretan, behin eta berriro itzultzen da leku berberetara, hartualdi bakoitzaren zenbait bertsio filmatzeko. Prozesu geldoa da, artisautza-lana ia-ia, eta, horren bidez, ahots propioa duten filmak egiten ditu, erraz harrapatzen gaituzten intuiziozko lan kritikoak.

## Laida Lertxundi, cine manual

El cine de Laida Lertxundi es un cine de artista: un cine del encuadre y de la mirada atenta. Una mirada desde el interior hacia el exterior, desde los hoteles y apartamentos de Los Ángeles, donde reside desde hace diez años, hacia los desiertos y las sierras del sur de California.

Trabaja con cámaras de 16mm, una mecánica casi obsoleta, y con un grupo de amigos y colaboradores no profesionales. Los rodajes suelen durar meses, durante los cuales vuelve una y otra vez las mismas localizaciones, filmando varias versiones de cada toma. Es un proceso lento, casi artesanal, que le sirve para elaborar películas con una voz propia, obras críticas a la vez que intuitivas que atrapan con sorprendente facilidad.

# KULTUR PROGRAMAZIOA
# PROGRAMACIÓN CULTURAL



**ZINEMATEKA** CINE
**ARTE BIZIAK** ARTES EN VIVO
**ARTE ETA EZAGUTZA** ARTE Y CONOCIMIENTO
**PROGRAMAK ETA JAIALDIAK** PROGRAMAS Y FESTIVALES

# LLORA CUANDO TE PASE

## LAIDA LERTXUNDI

**Otsailaren 27tik maiatzaren 18ra**
**Erakusketa Aretoa. -2 solairua**
**Asteartetik igandera: 11:00-20:00**
**Ostiral, larunbat, jaiegun eta bezperetan: 11:00-21:00**
**Sarrera dohainik**

Del 27 de febrero al 18 de mayo
Sala de Exposiciones. Planta -2
Martes-Domingo: 11:00-20:00h
Viernes, sábados, festivos y víspera: 11:00-21:00h
Entrada libre

### Hau ez da Hollywood

Otsailaren 27tik maiatzaren 18ra, Andy Davies komisarioaren zuzendaritzapeko ‘Llora cuando te pase. Laida Lertxundi’ erakusketa egongo da ikusgai AlhóndigaBilbaon. Laida Lertxundi Los Angelesen bizi den artista bilbotarra da, eta erakusketa hau bere zinegintzan zehar egindako ibilbidea izango da. Bertan, gainera, ‘We Had the Experience But Missed the Meaning’ instalazioa ere estreinatuko da, hau da, Los Angelesko filmei eskainitako aretoa eta Norvegian filmatu duen ‘Utskor Either/Or’ lan berriaren eraginei eta erreferentziei buruzko dokumentazioaren atala.

Bere lanek barruko zein kanpoko espazioen intimitatea dakarkigute gogora, eta zinemaren lengoaiaren mugekin jolasten dute. Ikus-entzuleen gurariak zein aurreikuspenak jartzen dituzte kolokan, eta soinua zein musika habitat naturalekin lotzeko modu alternatiboak bilatzen dituzte, egoera afektibo bihurtzen den paisaia-geografia sortzeko asmoz.

Bere filmak zenbait museotan aurkeztu dira: MoMa, Tate Modern, Musee Jeu du Paume edo Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionalean, besteak beste. Horretaz gain, Whitney Biennialerako eta Lyon Biennalerako ere aukeratu dute, batzuk aipatzearren.

### Esto no es Hollywood

AlhóndigaBilbao presenta del 27 de febrero al 18 de mayo la exposición ‘Llora cuando te pase. Laida Lertxundi’ comisariada por Andy Davies. La exposición de Laida Lertxundi, artista bilbaína afincada en Los Ángeles, es un recorrido por su obra cinematográfica que incluye el estreno de la instalación ‘We Had the Experience But Missed the Meaning’, una sala dedicada a las películas de Los Ángeles y un apartado de documentación sobre sus influencias y referencias que incorpora su nuevo trabajo ‘Utskor Either/Or’ rodado en Noruega.

Sus obras evocan la intimidad de los espacios, tanto internos como externos, y juegan con los limites del lenguaje cinematográfico. Cuestionan los deseos y expectativas del espectador y buscan modos alternativos de vincular el sonido y la música con los hábitats naturales para crear una geografía paisajística que se transforma en estados afectivos.

Su trabajo fílmico se ha presentado en museos como MoMa, Tate Modern, Musee Jeu du Paume o Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía y ha sido seleccionada para el Whitney Biennial y el Lyon Biennale, entre otros.














## Lekuari erreparatuz

Erakusketa Aretoan egindako ibilbidean, Laida Lertxundiren zazpi film labur egongo dira erakusgai, eta, kasu guztietan, lekuak izango dira euren jatorria. Bere lanen hasieran, zenbait bisitaldi egiten ditu, ingurunea arreta handiz dokumentatzeko. Horretarako, argiaren irakurketak idatzi eta giro-soinua grabatzen du. Erregistro horiek bere filmaketetarako lehengaiak izango dira, hain zuzen ere. Behatzeko eta lekuari erreparatzeko ekintza artista moduan garatzen duen jardunaren jatorrian bertan dago.

Gero, paisaia berera itzultzen da adiskide eta laguntzaileen taldearekin. Ez dira aktoreak. Eszenatoki horiek okupatzen dituzte, eta kameraren aurrean jarritako gorputzaren zenbait koreografia egiten dituzte bertan. Jarrerak egiten dituzte, enkoadraketatik irten eta sartu egiten dira, zoruan etzaten dira edo sofan esertzen dira. Sarritan, ez dute ezer egiten. Beste batzuetan, inoiz ebazten ez den istorioa edo narrazio laburra ere iradokitzen da.

Irudiak behin eta berriro errepikatzen dira, baina errepikapen bakoitzean badago aldaketa txikirik: enkoadraketa berria, originalaren bertsio berria. Soinua eta irudia aldi berean grabatzen dira beti, eta basamortuko edo itsasertzean lehertzen den itsasoko zaratekin nahastuta entzuten dira abestiak.

## Prestando atención al lugar

En el recorrido por la Sala de Exposiciones se muestran siete cortometrajes de Laida Lertxundi, cuyo origen son siempre los lugares. Su trabajo comienza con una serie de visitas en las que documenta cuidadosamente el entorno, anotando lecturas de luz y grabando el sonido ambiental. Registros que serán la materia prima de sus rodajes. Este acto de observación, de prestar atención al lugar, está en el origen de su práctica como artista.

Más tarde vuelve al mismo paisaje con un grupo de amigos y colaboradores, que no actores, que ocupan estos escenarios en una serie de coreografías del cuerpo delante de la cámara. Adoptan posturas, entran y salen del encuadre, se tumban en el suelo o se sientan en el sofá. A menudo no hacen nada, otras veces se sugiere una historia, una narrativa breve que luego nunca se resuelve.

Las imágenes se repiten una y otra vez pero en cada repetición hay una pequeña variación: un nuevo encuadre, una nueva versión del original. El sonido siempre se graba a la vez que la imagen y las canciones se oyen entremezcladas con los ruidos del desierto o el mar que rompe contra la orilla.

# LAIDA **LERTXUNDI**

**ELKARRIZKETA** ENTREVISTA

## 'PAISAIETAN FILMATZEAN, ZINEAREN MEKANISMOAREN ETA NATURAREN ARTEKO KONTRAPUNTUA SORTZEN DA'

## 'AL RODAR EN PAISAJES, SE CREA UN CONTRAPUNTO ENTRE EL MECANISMO DEL CINE Y LA NATURALEZA'




**Laida Lertxundi bilbotarra zinea ikastera joan zen New York eta Los Angelesera, eta bertan geratu zen. Kaliforniako hegoaldeko paisaiak, Carrey Mcwilliamsen arabera «itsasora begira dagoen basamortu horrek», harri eta zur eginda utzi zuen.**

**AlhóndigaBilbao: Nolako garrantzia du Kaliforniako hegoaldeko paisaiak zure zinean?**

- **Laida Lertxundi:** Oso leku berezia denez, hurbiletik aztertu beharra dago. Nire filmek hiri-gunearen eta paisaia periferikoen irudi zehatzak proposatzen dituzte. Paisaietan filmatzean, zinearen mekanismoaren eta naturaren arteko kontrapuntua sortzen da. Nire filmetan, oso gustuko dut paisaietan sartzea/tartean egotea. Hori dela eta, leku horretakoak ez diren tresnak, soinuak eta jendea dakartzat enkoadraketara. Hartara, zinearen mekanismoaren eta naturaren arteko, fikziozkoaren eta bertakoaren arteko kontrapuntua sortzen da.

**AB: Zinea egiten duzunean, zure jarrera artistarena da, zuzendariarena baino gehiago; prozesu desberdinak al dira?**

- **LL:** Jendearekin lan egitea oso berezia da, eta filmaketa profesionalean barik badirudi punk musikako talde batekin lan egiten ari garela. Zereginak aldatu eta pantailan agertzen diren guztiek soinua ere grabatzen dute, hartualdiak prestatzen dituzte... Oso inplikazio materiala dago zinearen baliabideekin.

**AB: Esan izan da zine esperimentala zinearen eta artearen arteko Bermudetako triangelua dela.**

**- LL:** Egia esan, pintura, argazkilaritza, musika, eskultura, dantza... izan ditut inspirazio-iturri nagusi, baita zinea bera ere. Zuzendaria eta artista termino trukagarriak izango direlakoan nago, betiere, zinearen kontzepzio kolektiboa irekitzea lortzen badugu.

**La bilbaína Laida Lertxundi fue a estudiar cine a Nueva York y Los Ángeles y se quedó. Le atrapó el paisaje de California del Sur, ese «desierto que mira al mar, como la define Carrey Mcwilliams».**

**AlhóndigaBilbao: ¿Qué importancia tiene el paisaje del sur de California en tu cine?**

- **Laida Lertxundi:** Es un sitio especial que merece la pena estudiar de cerca. Mis películas proponen imágenes concretas de este espacio urbano y de sus paisajes periféricos. Al rodar en paisajes, se crea un contrapunto entre el mecanismo del cine y la naturaleza. En mis películas juego a interferir/mediar los paisajes, trayendo al encuadre gente, sonidos y herramientas que no pertenecen a ese lugar. Se crea así, un contrapunto entre el mecanismo del cine y la naturaleza, lo ficticio y lo autóctono.

**AB: Haces cine con un talante más de artista que de directora, ¿son procesos distintos?**

- **LL:** Trabajar con gente es muy particular y se parece más a un grupo de música punk que a un rodaje profesional. Cambiamos de roles y todas y todos los que aparecen en pantalla graban también sonido, preparan tomas... Hay una implicación muy material con el medio del cine.

**AB: Se ha dicho que el cine experimental es un triángulo de Las Bermudas entre el cine y el arte.**

**- LL:** Es verdad que he chupado mucho de pintura, fotografía, música, escultura, danza… además de cine. Espero que directora y artista puedan ser términos intercambiables si conseguimos que haya una apertura en la concepción colectiva de lo que es el cine.



**ZUZENDARIA ETA ARTISTA TERMINO TRUKAGARRIAK IZANGO DIRELAKOAN NAGO, BETIERE, ZINEAREN KONTZEPZIO KOLEKTIBOA IREKITZEA LORTZEN BADUGU**

ESPERO QUE DIRECTORA Y ARTISTA PUEDAN SER TÉRMINOS INTERCAMBIABLES SI SE LOGRA UNA APERTURA DEL CONCEPTO DEL CINE

**AB: Erakusketan, instalazioa estreinatuko duzu bi pantailatan. Lan berri hau nolakoa den azalduko diguzu?**

**-LL:** Bioy Casares idazle argentinarraren kontakizunean dago oinarrituta: 'Todos los hombres son iguales' (Gizon guztiak berdinak dira). Bertan, emakume alargun bat mutil gazte batekin maitemintzen da. Erabat lotsatuta dago. Bere auzotik urrun dagoen logela alokatzen du elkarrekin egoteko, eta mutilari autoa uzten dio, bertaraino joan dadin. Topaketak moteltzen hasiko dira, mutila gero eta beranduago helduko delako. Emakume alargunak detektibea kontratatuko du, mutila ikertu dezan. Kontakizunaren amaieran, alargunak lagun bati azalduko dio zein izan den ikerketaren emaitza. Irainduta dago, eta kostata hitz egiten du. Zer gertatu den azaltzea lortzen duenean, hutsala da benetan, mutilak nahiago duelako gidatu.

Berehala, niretzat oso interesgarria izan zen guraria/automobila transposizio hori. Nire ustez, oso estrategia egokia zen, Kaliforniako hegoaldeko paisaia erakusteko, sarritan den-dena ikusten delako ibilgailuko leihatilatik. Instalazioan, egokitzapenaren ezintasunarekin jokatzen dut. Pantaila biak aurkako hormetan daude jarrita, eta Casaresen testuarekin elkarrizketan aritzeko bi modu desberdin daude erakusgai. Lanaren izenburua T.S Elioten 'The Dry Salvages' olerkian dago oinarrituta.

Bi pantailak lan egiteko modu berria dira, baita testuen erabilera bera ere. Lankidetzapeko proiektua izan da erabat. Raya Martin zinegile filipinarrak eta Gym Lumbera kameralariak parte hartu dute. Arizonako eta Mexiko Berriko irudiak Fernando Silva zinegile portugaldar/estatubatuarrarekin filmatu nituen. Ia-ia film osoa egin nuen San Diegoko Kaliforniako Unibertsitateko nire zine-ikasleekin. San Diegoko kalezuloetan eta garai hartan Los Angelesen neukan etxebizitzan filmatu genuen. Ohioko Wexner zentroko Film and Video Studio Programeko editore paregabeei esker, postprodukzioa egin ahal izan nuen.

**AB: En la exposición estrenas una instalación en dos pantallas. ¿Puedes explicarnos este nuevo trabajo?**

- **LL:** Parte de un relato del escritor argentino Bioy Casares, 'Todos los hombres son iguales' que cuenta la historia de una viuda que empieza una relación con un joven. Se siente avergonzada, alquila una habitación para verse, lejos de su barrio y le presta a él su coche para que pueda llegar. Los encuentros empiezan a ralentizarse, el chico aparece cada vez mas tarde. La viuda contrata a un detective para que investigue al chico. Al final del relato la viuda está contándole el resultado de la investigación a una amiga, se siente humillada y no le salen las palabras. Cuando consigue decirlo, es algo banal, resulta que el joven prefiere conducir.

Me interesó de inmediato esa transposición de deseo-automóvil. Y me pareció una estrategia ideal para mostrar el paisaje de California del Sur ya que, a menudo, se ve todo desde la ventanilla del coche. En la instalación juego con la imposibilidad de la adaptación. Las dos pantallas están en paredes opuestas y muestran dos maneras de entrar en diálogo con el texto de Casares. El título de la obra viene de un poema de T.S Eliot, 'The Dry Salvages'.

Las dos pantallas son una manera nueva de trabajar, el uso de textos también es algo nuevo. Fue un proyecto muy colaborativo. Contamos con la participación del cineasta filipino Raya Martin y su cameraman Gym Lumbera. Las imágenes de Arizona y Nuevo Méjico las rodé con el cineasta portugués / estadounidense Fernando Silva. Hice casi toda la película con mis alumnas/os de cine en la Universidad de California, San Diego. Rodamos en los callejones de San Diego y en mi piso en aquella época, en Los Ángeles. El centro Wexner en Ohio tiene un programa que se llama Film and Video Studio Program que tiene unos editores geniales que me ayudaron con la postproducción.